

Baserritarrak estu eta larri

Ba da oraintxe baztarretan arguioa ta marmarra! Martxoaren 1-tik esnearen prezioa 5,50 zigando dala erabaki dute. Baserritarrentzat diru iturri nagusia ta askorentzat ia bakarra, esnea da gaur.

Sal-neurri ortan salduta eutsi aal dezaioke baserriari...? Ikusi: dezagun: Esnea baserritarrei ordaintzen zaiona ... 5,50 Bildu, zentrallean banatu, eta dendetara partitu ... 2,10 Denzen saltzen duanaren irabazia ... 0,45

Azkenean, erosleeri saltzeko ... 8,20 Beraz, baserritarrak esnea, 5,50-an eman bear du, eta gainera gero ez dauka «buelta» aundirik.

Alegia: emen esne Zentralak, Gurelesa, Kopeletxe ta abar, baserritarrenak emen dira, ta, baserritarrenak Zentralaren irabaziak ere. Bai, baiñan 0,15 besterik ez badu irabazten Zentralak, dena osorik baserritarrei partituta ere: 5,65 da gutzia.

Ikusi dezagun baserritarrei esnea zenbat kostatzen zaion: (Gipuzkoa-ko baserriak onenak batean ateratako kontuak dira). Bei bakoitza batez-beste 4.000 litrotan pasa zan, Nagusiaren jor-nala, orduko 25 pezta atera-ta, litro esnea 6,05 kosta zaio.

Galeran ari da saltzen. Ori baserri on batean ta 4.000 litro ematen dituzten beaikin. Nola ari ote dira beste asko...?

Gaiñera kontuan euki, orduak kontatzen asten ba gero, 12 ordutik aurrera, edozein baserritarrak sartzin dituala goizetik gauera. Eta jairik ez daukala, larunbat arratsalderik gutxiago.

Este-beiak, zakurra katearekin bezala lotzen bait-du ganadu zalea.

Aiek beren orduetan jetzi ta gobernatu egin behar dira. Ontatik dator, etxeko gizonarekin batera, andreak, semeak, alabak, aitonak, amonak, eta, besterik balitz ark ere bai, danak lan egitea. Azkenean jornal bat bakarra irabazteko, eta ura alakoa.

Konpara dezagun orain baserritarrenen jor-nala, gizarteko beste langileen irabaziekin:

Esate baterako, ieltsero peoi batek = orduko 45-50 pezta irabazten ditu, egunean 10 ordu lan egin-da, 500 pezta dira.

Eta peoi batekin konparatu degu, ez injeniero batekin.

Zer irten bide? Esnea merkeago sortu, ala diote baztuek. Europan Merka-dokomunean, esnea sobre omen dago ta emen bezin merke edo merkeago Bai, ala da, esnearen kosta eta jetzi egin bear da.

Baiñan nola...? Dakianak esan dezala, pozik ikasiko genduke... Nola nai-ere, ori asmatzerako denboraldi bat joango da. Eta birtantean zer...? Millaka famili eguneroko ogirik gabe utzi? Kalera alde egin...? Bai, eta, 40-50 urtekoak nun artuko dituzte...? Zartako ordainia, 1.200-1.400 peztakoa da illeko. Orrekin nola bizi senar-emazteak...? «Zakua artuta eskera joan bearko degu». Ez dugu bateri bakarrik entzun!

Orra, baserritarren larria, estutasuna, ezina... Benetako irten bidea, guk ikusten degunez, au izan liteke: Esnea, bear-bearrezkoa da gizartearentzat. Jendea bizi liteke, Koka-Kola edo Berbeza edan gabe. ERRI bta ez, esnerik edan gabe. Baiña baserritarrak ain bearezko dan gauz bat sartzin badu, berari lagundu bear zaio geien. Bearezko ez diran gauzak garestituaz eta bearezko diranak primatuaz.

KATALUÑAKO BERRI

Maiz xamar, ez dugu euskaldunok Kataluñan gertatzen dana hurbildik jarraitu ohi; eta hau desegokia da oso, nere uestez. Kataluñako gertae-rak eta arazoak guretzako argi-tu-ri izan bait ditezke askotan. Joan dan Abenduaren literaturako sarietan gertatu zaiena, esate baterako, oso gogoan hartzekoa dugu.

1969-ko Abenduaren 13-an, urte-roko sei literaturako-sari eman behar ziran Bartzelonan: nobela, olerkia, ipuina, saiakera, gaztaro-saria eta haurtaro-saria. Eta hona hemen gertakari harrigarria: nahiz katala-nera gure uestez hizkuntza askarra, landua eta ikasia izan, epaikariek hau erabaki zuten: hiru sari bes-terik ez ematea, seietatik beste hirurak eman-gabe utzi! Josep-Pla nobela-saria eman da aurtengo Ur-tarrilean, hau bai, Baltasar Porcel idazleak sariaren 500.000 pesetak irabaziz; bainan ez Santa-Luziaren bezperako Sant-Jordi deritzana [no-bela-sari zaharrena eta fatamueña, hain zuzen]; eta, era berean, ez Josep-Ixtar-Saria (saiakera) eta ez Joaquim-Ruyra-Saria (gaztaro-saria) ez dira eman izan, «gostasun edo kategoririk ezaz»... Hiru sari nagusi-ak, beraz, hutsaen gelditu dira. Ez horiek bestalde, 1969-an ez bait zan izan Segarra-Saria (teatro-saria, alegia).

Hitz batez: Kataluñako saririk so-natuena hartzailerik gabe gelditu dira.

Montseraten argitaratzen dan «Serra d'Or» aldizkariak emanten duen azalpena gogoan hartzekoa da: «Hamar urtetan, egia da, ametsen-ere inork suma ezin zitzakean

helburuak iritxi ditugu... Baina mi-rariarik ezin dezateke beti ere irau-n, eta konprenitu egin beharko gen-duke. Aspaldi honetan, egia aitort-zeko, kataluñar kulturaren egoera, ia mirari huts bat izan da: benetan ulertu ezinezko bizi-aztarna bat».

Kataluñarrak, beraz, bildur dira; eta orain arte beren hizkuntzari ongi samar eutsi baldin badiote, aurrerakoan posible izango ote dan zalantzan daude; eta beren arteko «crisis innegable» hori agertu dala jator aitortzen dute.

Zer da kaka? Joan Oliver oler-kariak berak esaten digu argi eta garbi: «Kataluñar idazleez ari zera-te? Hona hemen nere erantzuna: ba ahal dago benetan oraindik hore-rralakorik? Bai, egia da, oraindik ere badago horrelakorik, noski; eta eguneroko ematen digute beren ius-tearen lekukotasuna. Ausarki euz-ten diote, bai, beren buruaren aka-beraren kontra. Zein dira, ordea, gure eragozpenak? Nun ditugu be-haztopa-harriak eta egiazko koskak? Harritzko pareta gogor baten kon-tra jotzen dugula. Horra. Erabiltzen dugun katalanera, folklore, arlot-ria eta etxeko-hizkera bihurtu zal-gula. Hots, idazle batek, egiazko idazle batek, kultura-hizkuntza ba-ten beharra nabaitzen du: tresna gisa darabilkien hizkuntza horrek eragin-menari atxiki, eta etengabe aurre-ra-go joateko gauza izan behar du. Ez eskolarik, ez unibertsidaderik, ez egunkaririk, ez telebistarik ez duen hizkuntza, gizarte-bizieratik eta moldizketako paperetatik erauzi eta itxertera dago nahi-ta-nahi ez. Maila hortako mintzaira bat arkeologia hutsa bihurtzen da ezinbestean».

ENE EUSKAL ERRIA! NORA ZOAZ?

Nolaz ukatu Euskal Erria bi-degurutze izugarrian arkitzen dala? Bidegurutze ontan, zutik eta erne dagoan euskaldunak, gauz otez eta oskarbian, aurrera begiratuaz, milla bide ikusten ditu, milla ideologi-jen gisa.

Ala bearrak ekarriko ginduz-ten gurutze astune ontara. Bi-degurutzea gurutze bidea izan oi da beti, izan ere.

Dena dela, or gaude gaur. Gaizki diot esatean «Or gauden. Agian obeki «or gabiltz», izu-garrizko gudaketan buru belar-ri sartuak.

Gogo-guda oni dagokionez, euskaldun guziak aukeramen-a egin bearran daude, naitanaiez-ko aukeramen-a, noski.

Urte asko dirala, batzuek, illunaren semeak, jokabide bat edo beste artu zutelarik, artan ausarki eta sotilki burruka egiten dute.

Beste batzuek berandu esna-tu dira. «Ain da gauza gozoa eta atsegiña lo egitea! Zurrun-ka eta nasaiki, gauaren esta-lian, norbaitek erreiten dutela gure landan arrotz azia, naasia ekarriko dun azia, alegia.

Baiña, gaur, alde batetik eta bestetik, burrikako tresnak prest daude. Beste askok, agian geienak, ala diote: «Eta neri zer? Burrurka ontatik ez degu jango beñiere. Or konpon, Mari Anton.»

Auek, eskuak tolostaturik, lo-

tan jarraitzen dute, noiz edo ixuriak, gauzak, eren uestez, oker dijoaztela ikustean Ordea, azkeneko auek ere aukerame-na egin dute.

Gauza agiria eta nabarmena da «parterik ez artezan», ori ere gizaaskatasunaren aukeramen berezia dala.

—Historia eta Euskal Erria—

Ao batez eta betez, denok diogu: «ERRIA», «GURE ERRIA».

Baiña, «ERRIA», zer da? —Zein da edo zein dira?

Erria, berez, gauza zenbaiti dagokionez, ez du izaterik. Adi-bidez, «erriak» ez du askatasu-nik ezer aukeratzeko.

Askatasuna gizon bakoitza-ren pribilegio bat da. Nolaz esan? Bakarka, banaka, bakoiz-ka edo taldeka, gizonak osa-tzen dute bere «erria».

Bakarka, banaka, bakoizka edo taldeka, gizonak, aukera-men aundi eta sakon baten bi-dez, geroari begira programa egokiak moldatuaz, programa auen argipean egunoro lan egi-ñaz, osatu oi da erria.

Nola edo ala, «erria» gizonak osatzen dute eta baita, era ba-tekoa edo bestekoa ere, «erria» gizonak moldatzen dute.

Emen bear bearezkoak dira programak eta ideolojia.

—Euskal erria arrotz ideologiaz inguratua—

Askok uste dutenez, azpija-nez, edo xeru xeru, aingeruki, edozein txertu ezarri liteke erri baten gorputz bizi-dunean.

Ordea oker daude eta alfe-rrikako lana egiten.

Erri batek lasterka, azkarki, «instintu» baten indarrez beza-la, kampa bota oi du berari ezarri zaion arrotz txertu zen-bait.

Zergaitik, ordea? Ordea, ez erlijioa bitarteko dagoalako. Ez.

Erriaren defentsarik bikaiñe-na bere izatea da, izate ori bere «kultura jatorra» izanik. Askok eta askok errukia ematen dute, ez erriari gaitz egiten diotela-ko, alferrikan indarrak eta ametsak benetzen ari diralako, baizik.

Oiek, asmo onez uste dut, eka-rrri nai duten kultura berria, kultura zorra, burugabea, «alie-natua» da.

Kultura arrotza, otza, euskal odolizpirik ez duena. Erne bai-ño leen il dan kultura alegia.

Kultura berria eta berritua, BAI, gure antziñako gogo-lur-rean, ama-lurrean sakonki eta bizi-ri sustraitua eta finkatua.

Itz batez, kultura «jatorra», kultura onen ardatza eta abe nagusia izanik askatasunari da-gokion begirunea.

ETXEGARAY HIL ZAIKU

Benetan berri txarra orain eman deutatena. Jose Luis Etxegarai jau-na hil berria da. Euskal arazoetan hainbeste lan eta ahalegin eginda-koa genduen eta tamala izan da hain gazterik gure artetik galtea. Atsularrek esandakoa berretuko nuke nik ere haregatik: «Neure jaun maitea, joan zatazkitz lurretik, bai-na ez gogotik, eta ez bihotzetik». Egiaz sentitzen dut bere heriotzea.

Helduaran zegoen gizona zen eta ene aita izan zitekean adinez, ene urtetako semeak bait zituen. Hala ere bere gogoan zen beti gaitzen artean egotea, beren problemak ja-kitea eta baita bere esperientzi-az lagundu eta iritzi onurakorrik ema-tea ere. Guztiok maite ukan dugu bere portarea zintzo eta jatorra eta ez gara hain erraz beraz ahaztuko.

Askotan gogoratzen dut bere bi-hotz emankor eta zuzena. Haren la-guntasuna osoa izaten zen, truke ezer eskatu gabe, lagun leialen gisa.

«Ma Lur filma, beste askoren diru-laguntasunaz batera, berak era-gin eta baita aurrera eramane. Inork ez daki zenbat buruko min eta itzul inguru egin zuen berak pelikula on-do atera zedin.

Bere esku zabalekotasunagatik kritikatu eta bekaizkeriaz ikusia ere ba zen, zertarako ukatu, baina guztiok dakigu gure Herria ez dela usategi bat. Ni nuke, gutienez on-do gogoratzen naiz berak orain best urte egindako opari batez. Bilbo za-harreko taberna batean ginen, afal-tzen ari izanaz. Raimon katalan kan-taria Bilbora etorria genduen eta leku haretan afori bat eskaintzen geneukon. Elkarrizketa bizia zegoen eta mila iritzi interesgarri apatzen ziren bertan. Etxegarai jaunna, nik ez dakit nola baina beti agertzen ohi zen gazteen artean, gurekin gen-duen.

Raimonek europar kategoria zed-dukala esaten zekun berak eta txi-to ongi zeritzan katalan gazteari. Gero joan izan zen eta pagatuko ordua etortzean zera aipatu zuku-ten tabernakoek: ez genduela deus-ik zoru. Etxegarai jaunak dena bere lepora hartu bait zuen. Berriz ikusi gendueanean irriparre batez esan zekun: «Gazte zarete orain-dik eta niri dagokit ordaintzea.

Halakoxea zen bera, ongilea eta isila, oso gizon apal eta maitagar-ria. Behar bada, dena ez zukean ondo eginen noski, baina pensatzen dezagun errazago dela kritika al-ferretan ezer egitea gogotea, eta ongi-egi dakigu hau, lan bati ekitea baino.

Lerro hauetatik neure atsekabea eta dolua adierazi nahi deuet bere familiako guztiak eta bere gaitze negargarri honek guztiak egin de-ukun pena sakona ere bai. Euskal Herriak seme zintzo bat galdu du. Goian bego.

Haren izenean egin dezakegun gutzia, ottoitez gainera, bere pau-soen atzetik joatea da, berak egite-ke utzi zuena eta edukirikio ame-tsak egiak bihurtzeko.

XABIER KINTANAK



Zuzendaria:
MIREN JONE AZURZA ARISTEGIETA

Naparroko-Kantauriko ta Ara-goiko Kaputxinoak argitaratua (Carlos III, 22 - Pamplona)

DONOSTIA'n:
Oquendo, 22 - Telf. 26666

ARPIDE SARIA:

Barruan	215 pezeta
Korreo batasunetako errietan. 265	
Atzerrietako beste errietan	285
Aidez Aurrez galdetu. Salmantan (Ale bakoitza)	5 pezeta